

CARITASEN KANPAINA

2017.eko IRAILAren 24a

URTEAN ZEHARREKO 25. DOMEKEA (A)

2017-2018: "Zure ahalegina denon atsegina"

«Ni naiz? Geu gara!»

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✚ Liturgi lagungarriok liturgiarako taldearen esku itzi.
- ✚ Aldez aurretik prestatu izan doguz, horregaitik kanpaina egiten dan sasoian Jaungoikoaren Herriaren otoitzean aitatzea komeni dan gertaeraren bat egon daiteke.
- ✚ Ezinbestekoa da liturgi lagungarriakaz batera doazan materialak irakurtea kanpainaren sena ondo ulertzeko.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok, Eukaristian batu gara, Jesusen agindua beteteko: "Egizue hau neure oroigarri". Jaungoikoak bizia emon gura deusku guztioi, Bera, emon egiten dan maitasuna dalako. Jaungoikoak geure bila dihardu, ebanjelioan entzungo dogunez, dei egiten deus-ku bere mahastira joan gaitez lan egitera.

Domeka honetan, Caritasen kanpainaren haritik, Nazareteko Jesus erreferentzia zehaz-tzat dauan konpromisoaz hitz egingo jaku. Ebanjelioan, besteakaz eta besteentzat izate-an sustraitzen dan konpromisoa da, konpromiso soziala, maitasunezkoa. «Ni naz? Geu gara!» dinosku jardunaldi honetako goiburuak. Konprometitzea zera da: izateko era jakin bat, geure buruagaz, besteakaz eta munduagaz hartu-emona izateko era jakin bat; bizitza ulertzeko era jakin bat eta bizia senidetetasuna sortuz banatzeko era.

Zutunik eta abestuz ekingo deusagu Eukaristiari.

SARRERAKO ABESTIA

CAMPAÑA DE CÁRITAS

24 de SEPTIEMBRE de 2017

DOMINGO 25º DEL TIEMPO ORDINARIO (A)

Curso 2017-2018: "Tu COMPROMISO mejora el mundo"

«SOY porque SOMOS»

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✚ Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✚ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✚ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: nos reunimos en esta Eucaristía, cumpliendo así el mandato de Jesús: "Haced esto en conmemoración mía". Dios busca la vida para todos, porque es un amor que se entrega. Dios nos busca, nos llama e invita a trabajar en su viña, como escucharemos en el evangelio.

Este domingo la Campaña de Cáritas nos habla de compromiso que tiene como referente a una persona muy concreta: Jesús de Nazaret. Un compromiso social y caritativo que tiene su raíz en el Evangelio, en el ser con los demás y para los demás. «Soy porque so-mos» nos dice el lema de esta Jornada. Comprometerse es un modo de ser, de relacionarnos con nosotros mismos, con los demás y con el mundo. Es una manera de entender la vida y compartirla creando fraternidad.

Iniciamos la eucaristía, puestos de pie y cantando unidos.

CANTO DE ENTRADA



ABADEAREN AGURRA

Ontasun mugagabea dauan Jaungoiko Aita, zuekin.

DAMU OTOITZA

Bakez bizi gaitzezala gura dauan Jaungoiko gure Aitaren maitasun eta parkamenean uste osoa jarrita, gure pekatuak autortu eta parkamena eskatuko dogu.

— Danokaz beti ona zarana:

Erruki, Jauna.

— Beti bihozbera eta errukitsua zarana:

Kristo, erruki.

— Hasarratzen gatxa eta errukian aberatsa zarana:

Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI

Lehenengo irakurgaiari, Jaungoikoaren salbamenezko egitasmoakaz bat egiteko eskatuko deutso bere herriari Isaiasek, holan zuzentasun eta senidetasunaren bidetik ibili ahal izateko.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI

Bigarren irakurgaiari, ebanjelizatzearen arloan oraindik zeregin ugari dauala sinistu arren, Jaunaren eskuetan jarten dau bere burua Paulo apostoluak.

EBANJELIOA

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Jaungoikoak gura dauana betez bizi ahal izateko, Berak suspertu behar dau gure otoitza eta indarra emon behar deusku. Eskatu daigun apaltasunez:

- Eleiza osotzen dogunon alde. Giza beharrianak kontuan hartu daiguzala eta garana eta daukaguna erdibanatzeko gauza izan gaitzezala.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Munduko agintarien alde. Behartsuei arreta eskaini deieela eta danon ona bilatu daiela zuzentasun eta alkartasunetik.

Eskatu deiogun Jaunari.

SALUDO DEL PRESIDENTE

El amor de Dios, Padre de infinita bondad, esté con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

Confiado en el amor y el perdón de Dios nuestro Padre, que quiere que vivamos llenos de paz, reconocemos nuestros pecados y pedimos perdón.

— Tú, siempre bueno con todos:

Señor, ten piedad.

— Tú, siempre clemente y misericordioso:

Cristo, ten piedad.

— Tú, lento a la cólera y rico en piedad:

Señor, ten piedad.

MONICIÓN a la 1ª LECTURA

En la primera lectura, escucharemos al profeta Isaías. Invita a su pueblo a ajustarse a los planes de salvación de Dios y así caminar por la senda de la justicia y de la fraternidad.

MONICIÓN a la 2ª LECTURA

En la segunda lectura, el apóstol Pablo, aunque sigue creyendo que le queda labor por realizar de cara a la evangelización, se pone en manos de su Señor.

EVANGELIO

ORACIÓN UNIVERSAL

Sabemos que para vivir entregados a lo que Dios quiere, necesitamos que Él mismo inspire nuestra oración y nos dé su fuerza. Pidamos con sencillez:

- Eleiza osotzen dogunon alde. Para que quienes somos miembros de la Iglesia vivamos abiertos a las necesidades humanas y seamos capaces de compartir lo que somos y tenemos.

Roguemos al Señor.

- Munduko agintarien alde. Para que los gobernantes de todos los pueblos se esfuercen en atender a los pobres y busquen el bien de todos, desde la justicia y la solidaridad.

Roguemos al Señor.

- Caritasen alde. Jaungoikoak bedeinkatu daizala Caritasen zuzentasun, bake eta bardintasunaren alde diharduenak eta aurkitu daiela behar daben laguntasuna euren konpromisoa aurrera erodateko, holan danok ikasi daigun ez goazala bakarrik, inguruan lagun asko ari dala mundu hobea eraikitzeko ahaleginean.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Gure kristau alkarteen alde. Jesusen indarraz beteta, Jaungoikoagaz bat egiteko eta alkartzeko lekuak izan daitezala eta sufritzen dagozanek itxaropena eta adorea aurkitu daiezala bertan.

Eskatu deiogun Jaunari.

Emoiguzu, Aita, senide lez, Erreinuaren eta bere zuzentasunaren alde lan eginez biziz, zeure borondatea beteten lagunduko deuskun guztia.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Mundua aldatu gura dauan kristau konpromisoa garatzeko, ezinbestekoa da ahulenen eta hauskorrenen, gure sasoko baztertuenen alde egitea. “Emon zeuok jaten!” hori, beraz, alkarte osoaren eginkizun bihurtzen da eta alkartasunezko zeinu apal eta ohi-koetz gauzatzen.

Eskerrik asko Caritasen alde egingo dogun kolekta honetan eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

JAUNARTZE OSTERAKO HAUSNARKETA

Frantzisko Aita Santuaren berbak 2016.eko otsaileko Jubileu Audientzian.

“Errukia eta bizitzako konpromisoa, Kristoganako fedearen lekukotasun dira”.

«Zer da konpromisoa? Eta zer esan gura dau konprometitzeak? Konprometitzen nazanean, erantzukizuna, norbaiten aldeko eginkizuna neure gain hartzen dot; eta eginkizun hori egiteko, garatzeko, gauzatzeko... estiloa be bada,

- Caritasen alde. Para que Dios bendiga a quienes colaboran en Cáritas en el servicio de la justicia, la paz y la igualdad y encuentren el apoyo que necesitan en su compromiso y así aprendamos que no vamos solos, que hay muchas personas a nuestro alrededor que también buscan la esperanza en un mundo mejor.

Roguemos al Señor.

- Gure kristau alkarteen alde. Para que nuestras comunidades cristianas, llenas de la fuerza de Jesús, sean un lugar de encuentro con Dios y entre las personas, un espacio de esperanza y de ánimo para quienes sufren.

Roguemos al Señor.

Concédenos, Padre, todo aquello que nos ayude a cumplir siempre tu voluntad de vivir fraternalmente, trabajando por el Reino y su justicia.

Por Jesucristo, nuestro Señor.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

El compromiso cristiano que quiere transformar el mundo pasa ineludiblemente por la opción por los más débiles y frágiles, por los descartados de nuestro tiempo. Así, el “¡Dadles vosotros de comer!” se convierte en tarea compartida por la comunidad con gestos sencillos y cotidianos de solidaridad.

Gracias por vuestra generosidad en la colecta en favor de Cáritas que ahora realizamos.

MEDITACIÓN DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Palabras del papa Francisco en la Audiencia Jubilar del 20 de febrero de 2016.

“Misericordia y compromiso de vida son testimonio de nuestra fe en Cristo”

«¿Qué cosa es un compromiso? Y ¿qué cosa significa comprometerse? Cuando me comprometo, quiere decir que asumo una responsabilidad, una tarea con alguno; y significa también el estilo, la actitud de fidelidad y entrega, de par-



eginkizun horregazko leialtasuna eta eskaintza... Konprometitzea, gure borondate ona eta gure indarrak bizitza hobetzeko jartea da... Jesusek Jaungoikoaren konpromisoa aditzera emoteko erakutsi dauan maitasun errukitsutik, geuk be geure konpromisoagaz erantzun deikeogu eta erantzun behar deusagu bere maitasunari. Eta hau, batez be, beharrizan gehien dagoan egoeretan, itxaropena gehien irrikatzen daben lekuetan. Esate baterako, bertan behera itzita dagozan personen, ezintasun handiak dabezan personen, gaixo larrien, hiltzorian dagozanen, autortzarik adierazoteko gauza ez diranen... alde dogun konpromisoa dator kit burura. Egoera guzti horreetan, Jaungoikoaren konpromisoa zabaltzen dogu guk bizitzako konpromisoaren, hau da Kristogan dogun fedearen lekukotasunaren bidez. Jaungoikoaren laztana eroan behar dogu beti –Jaungoikoak bere errukiagaz laztandu egin gaitualako-, besteei eroan behar deutsegu, beharrizanean dagozanei, bihotzean sufrimentua dabenei edo triste dagozanei: Jaungoikoaren laztanaz, geuri emon deuskun laztan beraz, hurreratu egin behar dogu».

ABADEAREN AGURRA

(bedeinkapenaren ostean)

Jaunak dei egin deusku, bere mahastian lan egin daigun eta Bera bizitzan aurkitu daigun, azken batean, lagun egiten deuskulako bere Erreina gure artean zabaltzeko ahaleginetan.

Zoaze Jaunaren bakean!

ticular atención con el cual llevo adelante esta tarea... Comprometerse, quiere decir poner nuestra buena voluntad y nuestras fuerzas para mejorar la vida... A partir del amor misericordioso con el que Jesús ha expresado el compromiso de Dios, también nosotros podemos y debemos corresponder a su amor con nuestro compromiso. Y esto sobre todo en las situaciones de mayor necesidad, donde hay más sed de esperanza. Pienso –por ejemplo– en nuestro compromiso con las personas abandonadas, con aquellos que cargan pesadas minusvalías, con los enfermos graves, con los moribundos, con los que no son capaces de manifestar reconocimiento... En todas estas realidades nosotros llevamos la misericordia de Dios a través de un compromiso de vida, que es testimonio de nuestra fe en Cristo. Debemos siempre llevar aquella caricia de Dios –porque Dios nos ha acariciado con su misericordia– llevarla a los demás, a aquellos que tienen necesidad, a aquellos que tienen un sufrimiento en el corazón o están tristes: acercarnos con aquella caricia de Dios, que es la misma que Él ha dado a nosotros».

DESPEDIDA DEL PRESIDENTE

(después de la Bendición)

El Señor nos ha invitado a trabajar en su viña y a descubrirle presente en medio de la vida, porque Él está acompañando nuestros esfuerzos para que venga a nosotros su Reino.

Podéis ir en paz.



Caritas

**Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao**